

"SAMIR" FILM-LABURRAREN GIDA:

SAMIR

MAX. RO

TARE

NET

CU. CAP.

2.200 KGS.

4.850 LBS.

28.280 KGS.

62.350 LBS.

33.2 CU.M.

1.172 CU.FT.

CORTEX STEEL
CONTAINER



CIMC

SP

D-TEC

KUP
KULUXETAN
KULTUR ELKARRITZA

FILM
PEDAGOGIKOA

Garazi Mendizabal Iker Suárez Sara Ojanguren Jon Aramaio Olaia Mendizabal
Haizea Elorza Juanjo Corera Enara Olea Izaskun Olano Koldo Zelestino Rita Naveira

FILMAREN EDUKIARI BURUZ

"Samir" film-laburra ikusi ondoren (gidoia, arlo teknikoen nondik norakoak, aurkitu dituzten zailtasunak...- Ikasleen galderak) ikasleen arteko eztabaida sortu daiteke gero:

- Ezagutzen dituzu kanpotik etorritako migrante edo errefuxiatuak?
- Nondik etorri dira? Nola heldu ziren? Zergatik etorri ziren?
- Badakizu zenbat heldu diren Euskal Herrira?
- Bakarka, taldeka edo familiaka etorri ziren?
- Ezagutzen duzu haien herriko egoera?
- Zure ustez zertara etorri dira hona?
- Hemen Euskal Herrian integratuta daudela uste duzu?
- Zer egin beharko lukete/genuke integratuta egoteko?
- Euskal Herriak etorkin gehiago jaso beharko luke? Badago tope bat?
- Zure ustez migrazioak zein alde positibo dauka eta zein alde negatiboa? (Kultura, ekonomia...)
- Euskara tresna eranginkorra izan daiteke jendea integratzeko?
- Gaur egungo gizarteak erraztu eta laguntzen ahal du egoera hau?
- Ekonomikoki laguntzak ezkaintzea bidezkoa dela uste duzue?
- Hezkuntza, mediku eta beharrizan pertsonaletarako dituzten arazo ekonomikoak bidezkoak iruditzen zaizkizue?



Irakasleak moderatzailearen papera hartuko du, guztion parte hartzea sustatuz eta guztion iritzia errespetatzen eta onartzen direla egiaztatuz.

FILMAREN ARLO TEKNIKOARI BURUZ

- Filma gustatu zaizu?
 - Ulertu da filmak adierazi nahi duena?
 - Zure ustez argudioa ondo egituratuta egon da?
 - Aktoreak haien paperean sartuta egon dira? Sinesgarritasuna trasladatu dute?
 - Naturaltasuna adierazi dute?
 - Ahotsak ondo proiektatu dituzte? (Dikzioa, ahozkapena..)
 - Aukeratutako irudiak ondo kokatuta egon dira zure ustez?
 - Planteatzen zenuten horrelako amaiera?
-

LANKIDETZAN ARITZEKO JOLASAK

HIZKIAK TREGUAN:

- Helburua: Errefuxiatu hitzaren esanahiari buruzko gogoeta egitea.

Euskal alfabetoko letra guztiak kutxa batean batuko ditu irakasleak (letra bakoitza orri zati batean idatzita) gero gela osoa borobil batean eseriko da eta kutxa hori pasatzen arituko dira musika entzuten den bitartean, irakasleak musika geldituko du, kutxa tokatu zaion kideari letra bat aterako du kutxatik eta errefuxiatuekin, bakearekin eta ongi etorriarekin zerikusia duen hitz bat aipatuko du.

MUGAREN BESTE ALDEA:

- Helburua: Norberaren eta taldearen askatasunak zer zentzu duen gogoeta egitea.

Leku handi eta zabal batean egitea komeni da. Jolas hau bideratzeko espazio handi baten erdian marra luze bat markatu behar da (klariona, zintza..). Kide bat edo bi jarriko dira marraren erdian, irakasleak esaten duenean, beste kideak beste aldera pasatzen saiatu beharko dira, baina erdikoek harrapatzen badituzte erdian geratu-ko dira beste kideak harrapatzen, partaide guztiak erdian egon arte. Ariketa hau amaitzerakoan kide guztiak borobilean eseriko dira eta irakasleak hurrengo galderak egingo dizkie:

- * Zaila iruditu zaizue beste aldera pasatzea?

(Errefuxiatuek hau egunero bizitzen dute, batzuk harrapatzen dituzte, beste batzuek muga zeharkatzen dute eta beste batzuk hil egiten dira.)



“ONGI ETORRI, LAGUN” aBestiaren letra:

**Kurdistan, Senegal,
Nikaragua, Sahara,
Kolonia, Marruekos,
Txina eta Siria;
munduko herriak eta
hamaika kultura,
elkarrekin biziz gaur
Euskal Herrian.**

**Ongi etorri lagun,
zatoz gurekin,
topa egin dezagun,
(orain) elkarrekin**

**Saltoka, korrika
eta itzulipurdika,
jolasean eta
kantuan gabiltza,
mintzaira anitzak ta
kultura mordoak,
baina gure artean,
jo ta ke euskaraz**

65.300.000 errefuxiatu daude munduan
350.000 pertsonak Mediterraneo itsasoa zeharkatu dute...
...**3.000** inguru bertan hil zirelarik

Haien jaioterriak hauek dira:

Siria
Burundi
Camerun
Colombia
Eritrea
Nigeria
Guinea
Sudan
Pakistan...

Euskal Herrira 2.000 inguru heldu dira

Informazioa:

Kurkuluxetan elkarte

Done Bikendi 2-4.solairua - mob 662.47.27.46

www.kurkuluxetan.eus - umegunea@gmail.com

